

MAILLOPE

Larraun eta Lekunberriko
OSASUN ETXEA



260

2018ko uztaila

TOKIKOM

OSASUN ZERBITZUAK ZABALDUZ

ELIKADURA BURUJABETZA LANTZEN

Urte eta erdiko ibilbidea egin ondoren, ARAIZKO ZAPO-REA lan taldeak martxan darrai. Talde honetako lan ildo bat elikadura burujabetza da.

Mugarik gabe eta *Mundu bat* elkarteak antolaturik, Nafarroa osoan eskualdeka lan taldeak egin dira. Guk Iruñe aldeko merindadean parte hartu dugu, bertan baserritar, ekoizle eta kontsumitzaileok behar ditugun politika sortak bildu genituen eta Nafarroako Parlamentuan eginiko jardunaldi irekian, maiatzaren 15ean, araztarron izenean parte hartu genuen.

Merindadeak oso desberdinak badira ere, eskaerak berdintsuak izan ziren: Entitate publikoak bertako ekoizleei erostea, lurrarekin errespetuan ekoiztutako produktuen bereizketa argi bat egin ahal izatea, ekoizle txikiak erregistro sanitarioaren malgutasuna, diru-laguntzen banaketa justuago bat, herrietako zerbitzuak ahalbidetzea, lurraren babes...

Gai honen inguruan egiten zen II. Kongresua zen eta lehengo urtean egindako eskaerari erantzunez, jada gauza batzuk martxan dira. INTIA-n bada talde bat erosteketa publikoa ekoizleei zuzenean egin diezaioten lanean ari dena, INTIAko estrategiaren berrikuspenera egiten ari dira, *Lursare* (Jasangarritasunerako Nafarroako Agentzia) martxan da, Iruñeko Udaletxeko 0-3 eskolatan jada hasi dira bertako produktuekin soilik egindako menuak eskaintzen...

Beteluko Araxes eskolan ere "elikadura burujabetza" bultzatzeko pausoak ematen hasi ginen orain dela urte batzuk, ibarrean ekoizten diren produktuak eskolako jantokian sartuz. Balerdi eta Gar-Goik esnekiak, Atabal okindegiko ogia, Maite harategiko haragia...

Araitz-Betelun, baditugu elikadura burujabetza bultzatzeko elementu adierazgarriak: lehengai desberdinak ekoizten dira (ardi esnea eta haragia, behi esnea eta haragia, barazkiak...), produktuen transformazioa (jogurta, mamia, gazta, ogia eta pastak...), ibarreko produktuak saltzen dituzten dendak, bertako produktuak erabili ditzaketen jatetxeak, landetxeak turistei erakusteko eta saltzeko gure produktuak. Eta baita bi jantoki kolektibo bertako produktuak bertara bideratu daitezkeenak.

Bide hauek guztiak jorratzen jarraitzen badugu, gure herrietan baserritar txikiak berriz ere bizitzeko aukera izango lukete eta gure lurra eskertuko liguke. Eta hau herritar guztion eskuetan dago, gure erosketak non eta zer eragin duten, kontzienteak izan behar dugu.

Agerikoa da, azken urteetako lehen sektoreko politikek porrot egin dutela; ganadu gehiago, landa eremu gehiago, sendagai gehiago, inbertsio handigoak... gurean ez dute emaitza onik eman. Bertako datuek agerian jartzen duten bezala, 1991an 103 baserritar ziren eta 2002an 43 ziren. Ziur gaude 2018an gutxiago izango garela.

Etorkizuna kolokan ikusten da, bertako gazte askok ez dute nahi lan loturik eta errentagarritasuna kili-kolo duen sektore batean lan egin.

Guk, gure baserritarrek urtetan egin duten lana mi-
resten dugu, bertako flora eta paisaiak oso aberasga-

riak dira, eta bertan ekoizten dena osasungarria. Gure herrietako etorkizuna bermatzeko sektore ezinbestekoa dugu.

Baserritarren errentagarritasuna eta belaunaldi-eskualdatzea gauzatzea bultzatu nahi dugu. Horretarako Nafarroako Unibertsitate Publikoa (NUP), INTIA, Araizko Udala eta Araizko zaporea elkarturik, udara honetan analisi lan bat egitea aurreikusten da bertako egoeraren berri jasotzeko. NUPeko (UPNA) bi ikaslek bere Gradu bukaerako lana Araitzen egingo dute. Batek Araizko baserri eta lurren egoera eta belaunaldi erreleboa gauzatzeko aukerak aztertuko ditu, baserrien aktibitatea mantentzeko. Eta besteak, Araitz eta eskualdean zein produktu ekoizten diren, noiz, kantitateak, eta abar, jantoki kolektiboetara bideratzeko helburuarekin. Lanketa hauek diagnostiko moduan planteatzen dira, sektoreko benetako egoera zein den jakiteko, eta ondoren, erabakiak eta proiektuak gauzatzen joateko.

Araizko zaporea.

MILA ESKER

Horrela hasi nahi dut eskutitz hau, eskerrak emanez, eta ez bakarrik neure partetik, baita Kalilu Fundazioaren partez ere. Lontxuren bitartez ezagutu dugu egoitza Bartzelonan duen Ganbiako Fundazio honen jarduna, zeuek bere webgunearen bitartez ezagutu dezakezue: blocs.xarxanet.org/fundaciokalilujammeh/

Eskerrak ere eman dizkiet, Pirritx eta Porrotx pila-zoei, lontxuk ekarritako argazkiak ikusi orduko, ibarrean ikuskizun txiki bat eskaintzeko prest agertu zirelako. Fundazioari laguntzeko eta era berean, haurren eta horren haurrak ez direnen gozamenarako, helduok ere beti gozatu ohi dugulako beraiekin, euren elkartasun eta bihozberatasunarekin, jartzen duten gogoarekin.

Maiatzaren 25ean eskaini zuten emanaldia eta gurasoan aldetik jasotako esker onarekin pozik gaude. Niri bereziki, ilusio handia egin zidan, guraso zaretanoi zeuen seme-alabekin bertan ikustea. Bi eta hiru belaunaldi ikusi nituen bertan. Jarrai dezazuela denok barnean daramagun haur horretaz gozatzen.


Eskerrak ere eman nahi dizkiet, ikuskizunera joaterik izango ez zutela jakin bazekiten arren, sarrera erosi zuten pertsona horiei guztiei. Helburua emanaldi horren bitartez fundazioari laguntza eskaintzea zelako. Jakin dezazuela festa txiki horretan bildutakoa dagoeneko bidali dugula eta lontxu Ganbiatik bueltatzen denean, hein batean gure ekarpenarekin egindako lan horien berri izango dugu.

Gure kideekiko eskuzabaltasun eta gizatasun horrekin jarrai dezagula espero dugu, gure ekarpen txikienarekin ere gauza asko egin baitaitezke lur horietan.

Mila-mila esker bihotz-bihotzez Kalilu Fundazioaren eta nire partez!

Txaro Garate.

Zure iritzia bidali nahi badiguzu idatzi mailope@labrit.net-era hilaren 20a baino lehen.



12



16



24

04 ESKOLATIK MAILOPERA

05 BERTSO BERRIAK: Ioseba Goikoetxea.

06 ELKARRIZKETA: Aralar Elkarte.

11 KUXKUXEAN: Udako zorion agurrak.

12 BATZARRE

14 LUZE ETA ZABAL

16 ERREPORTAJEA: Artilearen kudeaketa.

19 KULTURA

24 KIROLA

26 HITZ ASPERTUAN

27 KLIK EGIN

28 PLAZATIK PLAZARA: Larraun eta Lekunberriko osasun etxearen irekiera.

30 KONTU TXIKIAK

• MAILOPE DOAN BANATZEN DA HONAKO HERRIETAN:

Albiasu, Aldatz, Alli, Arribe, Arruitz, Astitz, Atallu, Azkarate, Azpirotz, Baraibar, Betelu, Errazkin, Etxarri, Gaintza, Gorriti, Intza, Iribas, Lekunberri, Lezaeta, Madotz, Mugiro, Oderitz, Uitzeta eta Uztegi.

• ARGITARATZEN DU:

Mailope Kultur Elkarte.
L.G.: NA 719/93
Mailopek ez du bere gain hartzen bertan adierazitako iritzi eta esanen erantzukizunik.
issuu.com/mailopealdizkaria

• ERREDAKZIOA:

Agurtzane Altuna, Urko Aristi, Mikel Hernandorena, Arantxa Mikeo, Ainhoa Beraza eta Andoni Tolosa.

• ARGAZKIAK:

Labrit, Juan Antonio Garaikoetxea, Ricardo Bosch, Ibarberri ikastetxea, Araxes ikastetxea, Mikel Betelu, Camino Garralda, Lontxin Zubillaga, Feliziano Buldain, Plazaola Partzuergo Turistikoa, Mendiialdea Mankomunitatea eta Ainhoa Mitxaus..

• PUBLIZITATEA:

Labrit Multimedia - 948 210 103 - mailope@labrit.net.

• MAKETAZIOA: Araitz Amatria.**• TIRADA:** 1.600 ale.

Nafarroako Gobernuak, eskualdeko Udal, Kontzeju eta bazkideek babestutako aldizkaria.

Nafarroako  Gobierno de Navarra

LABRIT
MULTIMEDIA

IBARBERRI



AGUR IBARBERRI ESKOLA!

Eskola honetan, 11 urte daramazkigu gehienok. Bi edo hiru urterekin hasi ginen, eta beti oso gustura etorri izan gara. Txikiak ginenean, patioan denbora asko pasatzen genuen zaharragoekin eta oso gustura ibiltzen ginen jolasten.

Aurtengoa, azkeneko urtea da eskola honetan. Momentu on eta txarrak izan ditugu guztiok. Momentu txarrak adibidez, azterketak egiten. Baina hala ere, momentu on gehiago izan ditugu eta hoberenetakoa ikasurte honetan egin dugun Salouko bidaia izan da.

Gutako batzuek datozen bi urteetan ere hemen jarrai-

tu nahiko lukete, oso gustura gaude eta hemen; besteek, berriz, institutu berri batera joateko gogoia dute DBH 3 eta 4 egitera, lagun berriak egin eta esperientzia berriak bizitzeko.

Mila esker urte hauetan guztietan gurekin egon zareten irakasle, jantoki eta garraioko zaintzaile eta eskola komunitateko kide guztiei. Joaten garen tokira joaten gara ere, bihotzean eramango dugu gure eskola.

Ahal dugun bezain pronto itzuliko gara bisitan!

DBH 2. mailako ikasleak.

eskolatik
mailopera



**aseguru
gintza
XXI**

**ASEGURU
AHOLKULARIAK**

*Zure ondarea eta segurtasuna
babesteko modu bakarra
behar bezela aseguratua
egotea da*

- ▶ aseguruak@aseguruak.eus
- ▶ 943 65 22 20
- ▶ Korreo Kalea 7-baxua 20400 Tolosa



NEKAZARI, S.L.

Kubota
STIHL

Olagain. Mugiro. Nafarroa
Tel.: 948504128
Fax: 948504377
nekazarisl@hotmail.com

ANTONIO CARRARO

BIDEGOXO JATETXEA

Jaunartzeak
Ezkontzak
Ospakizunak
Enpresa ekitaldiak

Usabal Kiroldegia
20400-TOLOSA 943 577 573
info@bidegoxo.com



ALTSASU KASUA

Epaiaren zain kalean zeuden Altsasuko lau gazte behin-behinean eta fidantza jartzeko aukerarik gabe espetxeratu egin zituen Auzitegi Nazionalak. Zazpi dira Altsasuko ustezko erasoarengatik espetxean dauden gazteak eta 9 eta 13 urte bitarteko kondenak jaso ondoren, Auzitegi Gorenaren epaiaren zain daude.



KORPUS EGUNA IRIBASEN

Oraindik gure eskualdeko zenbait herritan Korpus Eguneko prozesioa egiten jarraitzen dute. Iribasen esaterako, herritarrek ez diote huts egiten herrian barna egiten duten prozesioari.



BERRI TXARRAK SANFERMINETAN


Atzerrian egiten ari den biran geldialdia egingo du Berri Txarrak taldeak eta kontzertua emanango du Sanferminetan. Uztailaren 8an, Iruñeko Foruen plazan hitzordu berezia izanen dute.

bertso berriak Mailoperi jarriak: Ioseba Goikoetxea (Gorriti)

**Justizia lortzeko
Al dago kartzela**
Eztut uste gaur egun
Dagonik horrela
Gezurra nagusi ta
Egia ustela
Erabiltzen gaituzte
Komeni bezela.

Adibide Altsasun
Azken **epaiketa**
Barrua baitaukate
Gorrotok **beteta**
Pixka bat hausnartzeko
Hartzatela **beta**
Herri honek bakean
Bizi nahi du **eta**.

Doinua: Iturengo arotza.



Hayderentzako oina:
Pesta giroan ongi
moldatu altzara

Puntuak:
Dizdira, bira, begira,
dira.

Udazkenean hasiko dira guardetxe berria eraikitzen

Aralar Elkartek joan den hilean Aralarko Eguna ospatu zuen eta bertan Lakuntzako alkatea eta Aralar Elkarteko lehendakaria den Patxi Razkinen guardetxe berriaren proiektua eta eskuartean dituzten hainbat egitasmok aurkeztu zituen.

Zein proiektuekin zabiltzate lanean azken urte hauetan Aralar Elkartean?

Alde batetik, betiko inbertsioak dauzkagu, ganbelak eta bideak konpondu, itxiturak egin... Eta bestetik, Natura 2000 sarearen barruan sartu gara mendi larreak berreskuratzeko. Bost urtetarako proiektu bat da eta helburua galdu diren larreen zenbait eremu berreskuratzea da. Otea kendu eta gero, eremu horretan, itxitura batzuekin, behiak edo behorrak sartuz. Guk lau eremu aukeratu genituen, guretzat garrantzitsuak direnak edo interesgarriak direnak.

Zeintzuk dira eremu horiek?

Ezantza, Mugerdi, Beuntza eta Unako putzu inguruan dagoen beste bat. Eremu horietan lau itxitura egin ditugu, otea eta garoa kendu dugu eta bertan hogeitau egun inguruz, behiak edo behorrak egongo dira. Ganadu-

zaleekin akordio bat adostea lortu dugu hori egiteko.

Mendiko gazta ere martxan jarri duzue...

Bai, Gipuzkoan eta Iparraldean egiten den bezala, mendiko gazta proiektuari ekin diogu. Bi artzain ditugu hemen interesaturik, Arruazuko Aritz Ganboa eta Pello Goikoetxea uztegiarra, gaztagileak dira eta urteak daramatzate Idiazabalekin lanean, baina Nafarroan orain arte ezinezkoa zen Mendiko gazta komertzializatzea, legea aldatu behar zelako eta horretan ari gara.

Zer ekarriko dugu lege aldaketa horrek?

Udan zehar, mendian dauden hilabete horietan, mendian jetzi eta gazta bertan ekoiztu ahalko dute. Denboraldi horretan, ardiak mendiko larreez baino ez dira elikatuko. Gazta horrek kostu gutxiago dauka, produkzio kostu txikiagoa, bertako belarra jaten duelako bakarrik, baina merkatuan garestiagoa da. Beraz, gazta horrek duen zaporeak eta kalitatea, prestigio bat emateaz gainera, artzainei bideragarritasun ekonomiko handiagoa eskaintzen die. Orduan ematen dio artzainari zaporeaz eta prestigioaz aparte ematen dio halaber bideragarritasuna.

Baina, Idiazabal Babestutako Jatorri Izendapenarekin komertzializatzen jarraituko dute...

Bai, Idiazabalen barruan, Artzain gazta edo Mendiko gazta egongo da ziurrenik. Eta bakoitza komertzializatzeke baldintza batzuk bete beharko ditu.

Eta Aralar Elkartetik artzainek mendian egindako gazta hori komertzializatu ahal izateko ahalegi netan ari zarete orduan?

Bai. Nafarroako Gobernuarekin



Patxi Razkinen alkatetzarekin batera hartu zuen Aralar Elkarteko lehendakaritza. Arg: J.A. Garaikoetxea.

bilera asko izan ditugu eta azkenean konbentzitu egin ditugu. Baina hori ahalbidetzeko osasun-lege bat aldatu behar da, lurralde antolamendua ere moldatu egin behar da, txabolak handitu egin behar direlako. Jeztokiak beharko dituzte txaboletan, etxebizitza duin batzuk ere beharko dituzte, ardientzako itxiturak... Gaur egun, Aralarko txabolak nahiko zaharkiturik daude, beraz, zenbait aldaketa egitea beharrezkoa izango da. Gipuzkoan geror eta gehiago dira mendiko gazta egitera animatzen ari direnak eta urtez urte diru-laguntzak ematen ari dira txabolak egokitu eta pistak konpontzeko. Gure kasuan, pistekin ez dugu arazorik. Pista zirkularra dugu Aralarren eta ia txabola guztietara nahiko erraz iritsi daiteke. Aralarren egingo duguna proiektu pilotua izango da Nafarroa osorako, lege aldaketa horrek onurak ekarriko dituelako denentzat.

Bestetik, guardetxe berria egiteko asmoa ere baduzue...

Bai. 2009an eraikin zaharra bota zutenean, egurrezko eta hormigoizko eraikin handi bat aurreikusten zutenaren berri eman zuten, baina ezer ez. Guk oso ongi ezagutzen genuen hor zegoen familia. Bertan ia 100 urte bete zituzten Zufiaurretarren. 99 urte zeramatzen eta 100 urte betetzearekin batera, titulartasuna familiaren eskutan gelditzera zihoan. Ez zen kasualitatea izan, sei hilabete falta zirela familia bertatik botatzea.

Guardetxearen eraikina Nafarroako Gobernuarena zen eta Gobernuaren erabakia izan zen...

Bai. Aralar Elkartetik aurrekontu txiki batekin eraberritzeko proiektu bat aurkeztu zen, baina ez zuten onartu eta guardetxea bota eta bere horretan utzi zuten. Horrekin batera, eraikin berria egiteko 206 zuhaitz



Aralarko Egunean herri-kirol saioa ere eman zuten.
Arg: J.A. Garaikoetxea.

bota zituzten, alertzeak, pagoak, pinuak.. Baina egurra ez da beraiena, egurra gurea da, horren eskumena gurea da. Epaitegietara joan ginen eta irabazi egin genuen. Epaileak ebatzi zuen egurra gurea zela, baina ez genekien non zuten egur hori. Aurten, gurekin harremanetan jarri ziren Ingurumen Departamentutik eta Miluzeko biltegi batean zegoela esan ziguten. Egurrak ia prest zituztela eta etxola txiki bat egin nahi zutela gauzak gordetzeko. Ezezkoa eman genien, gure proiektua anbizio handiagokoa zela. Azkenean, gure proiektua aurrera eramateko akordioa lortu dugu. Bertako egurrekin eraikitako eraikuntza izango da, bertako ardien artilearekin egindako isolatzailea erabiliko da, eta eraikin bioklimatikoa eta kontsumo jasangarrikoa izanen da.

Eta eraikin horrek zein funtzio beteko ditu?

Alde batetik, 60 metroko eraikina eraikiko dugu basozainarentzako etxebizitza eta biltegia izango dena. Eta bestetik, proiektuaren bigarren zatian eraikin handiago bat aurreikusten da proiektzio areto bat, interpretazio zentroa, komunak, taberna



“Aralarko Mendiko gaztaren proiektua proba pilotua izango da Nafarroako osorako”

“Ditugun larreak, abereek 3.000 urtetan egindako lanaren emaitza dira”

bat eta turismo bulegoa bilduko dituen. Iñaki Urkiaren proiektuak dira biak.

Erabilera Publikoko Plan berria ere egiten ari zarete...

Bai eta horretarako Lemazainen Batzordea jarri dugu martxan. Nafarroako Gobernuak egin beharko luke, baina gu ari gara bideratzen. Batzorde horretan ari dira parte hartzen, Lur Sarea (Nafarroako Jasangarritasun Agentzia), Sakanako Garapen Agentzia, Plazaola Partzuego Turistikoa, Aralarko Larreen Batzordea, Nafarroako Gobernuko turismo arduradunak eta Atlantiar eskualdeko basozainen burua, inguru zenbait herritako udal ordezkariak eta San Migel Santutegiko kapilaua den Mikel Garciandia. Plan berri horrek guardetxearen egikaritzearekin amaitu beharko luke. Guardetxea Aralar osorako erdigune estrategikoa izatea nahi dugu, hor egingo dira, basozainak, turismo bulegoa, trafikoa ere bertatik pasatzen da, aparkaleku ona dugu...

Noiz aurreikusten duzue hasiko zaretela guardetxea eraikitzeko lanekin?

Aurten hasiko gara, urri aldera. 60.000 euroko aurrekontu bat genuen hasieran eta azkenean, 90.000 euroko inbertsioa izanen da Nafarroako Gobernuak bertan egingo duena basozainaren etxebizitza eta biltegiaren eraikinari dagokionez. Proiektuaren gainerako aurrekontua askoz handiagoa izango da, 390.000

euro inguruko aurreproiektua aurreikusitako dugu.

Aralarko Egunean aurkeztu zenuen proiektua jendaurrean... zer moduzko iritziak jaso zenituzten?

Bai 200 lagun inguru hurbildu ziren eta jendeak zoriondu egin gintuen.

Zer eskainiko duzue turismo bulego eta interpretazio zentro horretan?

Irteerak antolatuko ditugu eta aurretik erabilera egokien bideotxo bat eta azalpenak emango dira, gure ekosistema azalduz, eremu horietan abereekin nola jokatu behar den erakutsiz... Hori guztia ezinbestekoa da. Eta bestetik, gure historiaren eta abeltzaintzak eta artzaintzak gure inguruan duten garrantziaren erakusle ere izango da. Ezagutzen ditugun larre horiek ez dira naturalak, ditugun ekosistema horiek abereek 3.000 urtetan egindako lanaren emaitza dira eta horiek galtzen ari gara. Irteera gidatu batzuk antolatu behar ditugu itxitura horietara, jendeak ulertu behar duelako larreen berreskurapenaren garrantzia eta zenbateko dirutza ari garen gastatzen. Ulertu behar dute garrantzitsua dela abeltzaintza eta artzaintza bultzatzea, gero abereek lan hori naturalki egiten dutelako. Abeltzain gazteak lagundu behar ditugu, gure kontsumitzeko ereduak aldatu... Proiektu honek, elkar eragingarria izan behar du, abeltzaintza turismoarentzat lagungarri izan behar du eta alderantziz.



Nor da Nor?



Aurreko alean kaleratutako argazkia
Betelun ateratakoa da, 1978. urte
inguruan.

Ezkerretik eskuinera: Ander Arraztio
Pello Rekalde eta Kontxi Arraztio.
Eta atzean: Esteban Arraztio.

nor da nor?

Nor da Nor?



*Nortzuk azaltzen dira
argazkian?
Non ateratakoa da?
Noiz ateratako argazkia da?*

Bidali iezazkiguzu zure argazkiak denon gozamenerako
mailope@labrit.net helbidera edo 638 652 339ra deitu
eta kudeatuko dugu.



ekin
rotulación
948 85 32 79

SAN MIGUEL
gasolindegia



Xabier Garmendia 629 350 099
Arribe-Atallu

tanatorios
IRACHE
Betidanik

ALTSASU - IRURTZUN
LEKUNBERRI - BETELU - LEITZA

LOREAK, HILARRIAK, ESKELAK,
ERRAUSKETAK ETA ZERBITZU OSAGARRIAK

24 ORDUKO TELEFONOA
• 948 19 70 70 •
www.tanatoriosirache.es



CARPINTERIA HNOS. AZPIROZ, S.L.
ZURGINTZA OROKORRA
INDUSTRIALDEA 15- LEKUNBERRI
Telefonoa eta Faxa: 948507343
carpinteria@carpinteriaazpiroz.com

OGI-BERRI ALTZA



Aralar kalea, 41
Lekunberri
OGI BERRI
OKIN ARTISAUAK 948604884

Erdi Aro Garaikidea



●● Mikel Hernandez

lepa Pello!!! Zer moduz doa uda hasiera??? Behintzat azken egun hauetan eguraldi bikaina izaten ari gara eta, alde horretatik behintzat, poztekoa da. Gaurkoan azken egun hauetan globalki, munduko gertakari hurbilenak hartuta, larritzeko moduko gai bati helduko diot, giza eskubideei, hain zuzen ere. Badirudi Mendebaldeko gizarte honetan oraindik ere Erdi Aroan gaudela. Izan ere, giza eskubideak babestu eta aldarrikatu baino, buruzagi batzuk tematuta daude beraien boterea agerrarazteko nahi horretan...

Alde batetik, haien herrialdeak utzi eta ontzi txikietan itsasoan bizitza arriskuan jartzen duten milaka pertsona ditugu, iritsiko diren herrialdeetan hartuak izango diren jakin gabe. Bestalde, herrialde xume batetik beste herrialde "garratuago" batetara iritsi eta gero, seme-alabak beraien guraso nahiz familiako beste kideengandik banatuak izan diren errealitate xenofobo hau bizitzen ari gara, kaiola ezberdinetan pertsonak sartzeraino. Ez dakit buruzagiak zertan pentsatzen ari diren, baina lehengo egunean ikusitako argazki batean, Bigarren Mundu Gerran Europatik Amerikara milaka eta milaka pertsona eraman zituen itsasontzi baten argazkia ikusi nuen. Kontuan har dezagun...

Era berean, gaueko liskarrak terrorismo bihurtaraztea; adierazpen askatasuna ez errespetatu eta raperoak nahiz politikariak kartzelan sartzea; edota akusatua diren pertsona hauek kartzela ekiditeko erbestera joan behar izatea dira beste adibideetako batzuk. Hori bai, neska bat jai giroan bortxatu edota akabatzeagatik, bortxaketaren astakeria hau burutu duten pertsona hauek urte gutxi batzuk kartzelan pasa eta ondoren askatuak izaten dira, edo fidantza bat ordainduta berehala kaleratuak izaten dira. Lotsagarria eta penagarria benetan.

Horrela dago justizia eta mundua gaur egun Pello. Nik uste, denek dugula ezer ez ulertzearen eta gauzak hankaz gora daudenaren inpresioa. Izua eta konfiantza eza dira oraintxe bertan pertsonok sentitzen ari garena. Zein da zure hausnarketa gai honen inguruan Pello? Hurren arte!



●● Pello Azpiroz

lepa Mikel, uda hasiera ona izan da eta azkenean Larraunen eguzkia existitzen dela ikusi dugu!!! Bagenuen eguzkia ikusteko beharra. Kurtso amaiera lasaia izango zela pentsatzen nuen baina oso mugitua izan da, denetarik gertatu da. Arrazoi duzu Mikel, azkenaldi honetan eskubideen inboluzio nabarmen bat gertatzen ari da Mendebaldeko gizartean ere. Europa giza eskubideei dagokienez "krisian" dagoela esango nuke. Jada aspertuta nago denak berdinak gara diskurtsoa erabiltzen duten eta gero kontrakoa egiten duten politikariek.

Ontzi txikietan itsaso gurutzatzen duten milaka pertsonen etorria ez da orain dela gutxiko kontua, urteak daramatzate egoera horrekin Mediterraneoan gurutzatzen eta soilik "partxeak" jarriz konpondu nahi dute. Soluzioa emateko arazoaren sorrerara joan behar da, zergatik emigratzen dute? Ze egoera daukate beraien jatorrizko herrialdean? Nork sortua? Nire ustetan "lehen munduko herrialdeek" bere ardura ere badaukate egoera hauetan. Herrialde hauetariko askok nazioarteko esku-hartzearen beharra aitzakia bezala hartuz herrialde hauetara joan, txikitu eta lapurtu ondoren beraien egoerarekin inongo loturarik ez dutela esaten digute. Trumperi kritika asko egiten zaizkio baina ez gara gogoratzen Obama zegoenean ere harresiak eta hormak hor zeudela eta ez zuela inongo saiakerarik egin egoera hobetzeko.

Injustizien zerrenda luzea dago Alfon, Altsasukoak, Alfredo Ramirez, Valtony, Jordiak... Espainia izan da 2017an munduan artista gehien kartzelaratu dituen herrialdea Txina eta Iranen aurretik *Freemuse* erakundearen arabera. Manadakoen edo Urdangarinen kasuekin konparatzea nahikoa da egiazko justiziaren faltaz jabetzeko. Jarrai dezatela esaten justizia denontzat berdina dela eta inor ez dagoela legearen gainetik, beraiek ere ez baitute sinesten. Egoera konplikatua batean gaudela uste dut eta hemendik ateratzeko aktibazio eta antolakuntza soziala ezinbestekoa izango dira. Hurren arte!





Elene Goikoetxea Aldaregia

Uztailak 23, 6 urte!!!
Zorionak printzesa!!! Ongi pasa zure egunean. Muxu haundi bat Irati, aita eta amaren partez!!!!



Danel Aguirrezabala Iriarte

Abuztuak 18, 3 urte.
ZORIONAK DANEL!!!! Segi horrelako alaitasun eta maitasunakin!!! Muxu haundi bat Elene, aitatxo, amatxo eta Arribeko familiaren partez, eta bereziki, Aner eta Eriken partez.



Inge Zubillaga

Uztailaren 11n, 10 urte.
Gure ttikiarentzat hain seinalatua den egun honetan, Mailopeko lagunak ere ondoan nahi ditu! Zorionak INGE, 10 urte beteko dituzu uztailaren 11n. Egunderra izan. Muxuak Zubillaga eta Irazutar famili guztiaren partez



Haritz Oiartzabal

Hilaren 23an Juanagorrieko Haritzek sei urte.
Zorionak pottoko, urte askotarako!



Eneritz Estanga Goikoetxea

Uztailaren 31n, 16 urte.
Zorionak Eneritz! Egundona pasa eta muxu haundi bat aita, ama, Malen eta Andoitzaren partez.

Maite Ulazia eta Maritxu Goikoetxea

Uztailak 12 eta 15.
Zorionak!!!
Egun berezi horretan zuen aurpegietan irribarre handi bat ager dadila! Besarkada goxo bat. Zuen kuadrilla.



Mailope aldizkaria zorion agurrak jasotzeko irrikan dago!
Idatziezaguzu mailope@labrit.net e-postara hilaren 20a baino lehen.

M. Angeles Urrizalki

iragarkiak, berriak, eskelak...

Diario Vasco eta Diario de Navarrako Korrespontsala

**948513056
699179437**

Atabal
okindegia

Era askotako ogiak eta gozoak

Etxez etxe banatuko dugu

Ogia enkargatzeko...
948513151

MAITE
harategia

BERTAKO HARAGIA

Txistofra, txorizoa, salteixak, sukaldaturako platerak. Etxera eramateko zerbitzua ere eskeintzen dizugu.

Antigua Kalea N°7
31890 BETELU

Telf: 948 51 30 88

maiteharategia@hotmail.com

ARAITZ-BETELUKO EGUNA BERRITASUNEKIN DATOR AURTEN

Aurtengo Araitz-Beteluko Eguna dataz aldatzea erabaki dute antolatzaileek. Abenduan beharrean irailean egingen da, irailaren 30ean, hain zuzen ere. Gainera, egun horretan, ibarreko norbait omendu nahi dute eta horretarako herritar guztien iritzia jaso nahi dituzte. Hurrengo egunotan galdetegi bat jasoko duzu etxean, omendua zein eta zergatik izan behar duen proposatu dezazun. Animatu eta eman zure iritzia!!!

INGURUMEN DEPARTAMENTUAK ONTZI BERRERABILGARRIEN ERABILERA SUSTATZEKO EKIMENA AURKEZTU DU

San Joan bezpera egunean aurkeztu zuen Nafarroako Gobernuak Ingurumen Departamentuak Nafarroan uda honetan antolatuko diren ospakizunetan ontzi berrerabilgarriak erabiltzeko programa. Helburua plastikoaren erabilera murriztea da. Otordu herrikoi gehienetan plastikozko ontziak erabiltzen dira eta ondoren janariaren hondakinekin batera joan ohi da zaborrontzira. Plastikoa bera desegiteko izaten diren zailtasunek naturan duten inpaktua kontuan hartuta Ingurumen Departamentuak plastikoaren erabilera murriztu nahi du. Eta horretarako, udal, elkarte eta kolektiboek ontzi berrerabilgarrien programan parte hartzeko dei egiten die. Nafarroako Hondakinen Prebentzio-rako Bulegoaren bitartez bideratuko da zerbitzua. Leitzan San Joan bezperako herri-afarian bildu ziren 1.100 herritarrek estreinatu zituzten, berrerabilgarriak diren, platerak, goilarak, labanak, basoak eta bestelako ontziak. Lekunberrin San Joan egunez egin zen bazkarian edota Beteluko festetan ere dagoeneko erabili dituzte.

Varazdin Fundazioa arduratuko da ontzi horiek banatu eta ondoren bildu eta garbitzea. Zerbitzua guztiz doakoa da eta eskaera honako webgune honen bitartez egin dezakezu: <https://oprec-navarra.com/>



UDABERRIKO AZOKA ARAKASTATSUA

Udaberriko azoka egin zen ekainaren 2an eta 3an Lekunberriko frontoian. Bigarren eskuko zenbait postu eta eskualdeko nahiz kanpoko artisauen produktuak erosteko aukera izan zuten bertara joan zirenek. Urtetik urtera, arrakastatsua bihurtzen ari da.



ARAITZ IBARRAREN ETORKIZUNA DENON ARTEAN ERAIKITZEKO GOGOETA SAIOA

Araitz ibarraren etorkizunerako helburuak eta balioak herritar guztien artean finkatzeko deialdia egin dute Araizko Zaporea proiektuko kideek. Horretarako, datorren uztailaren 15ean, gogoeta saioa egingen dute, goizeko 10:00etan Azkarateko kontzejuan, ondoren bazkaria eta trikitaliak izanen dira. Gainera, haurrentzako zaintza zerbitzua egonen da. 15 urtetik gorako herritar guztiak daude parte hartzera gonbidaturik. Eman izena araizkozaporea@gmail.com e-postaren bitartez.



AURTENGO FESTETAN ERE INDARKERIAREN AURKA

Araitx eta Betelun sexu, genero nahiz identitatearen aurkako indarkeria saihesteko kanpaina jarri dute martxan hainbat herritarrek. Martxoaren 8arekin jarri zen martxan taldea eta dagoeneko hainbat elkarretaratze eta ekimen antolatu dituzte. Beraz, aurtengo udan ere hainbat pankarta ikusiko ditugu zintzilik edozein motatako indarkeria salatu eta kontzientzia sustatzeko.



40 LAGUN INGURU ELKARTU ZIREN SATORZULO LOKALEKO V. URTEURREN FESTAN

Bertso-bazkari ederraz gozatu zuten Sebastian Lizaso eta Aitor Sarriegirekin eta ondoren musean aritu ziren gaueko parrandari hasiera eman aurretik. Ea beste horrenbeste betetzen dituzuen!! Zorionak!!



UDA HONETAKO ARGAZKI SESIO DOTOREENAK EUSKARALDIAREKIN

Euskaraldia pixkanaka gerturatzen ari da eta hori uda honetan ere nabarituko dugu. Eskualdeko festetan herriz herri ibiliko dira Euskaraldia egitasmoa antolatzaileak, ekimenaren berri ematen. Photocall berezian parte hartuz herritar guztien parte-hartzea sustatu nahi dute. Gogoratu, azaroaren 23tik abenduaren 3ra bitarte hamaika egun euskaraz eginez gure hizkuntza ohiturak aldatzea dela helburua.



Eguneroko maite

Infernuko melodia beste behin... iratzargailua eguna hasi dela iragarritz. Buelta pare bat, eguneko ekintzei erreparasotxo azkarra eta gora. Ispiluan begiratu eta ez nago oso ziur ni naizen edo nire antza daukan zonbi bat, ilea... beno mototsa beti da konplize ona kasu hauetan. Tripak protestan dauzkat, komunetik pasa eta zerbait jan beharko. Nola hala "txukundu" eta sukaldera, gosaltzeko, baso bat esne, tostada bat olio eta tomatearekin eta gaurkoan fruta pixka bat. Zentzumenak jarri dira berriro guztiz martxan. Orain arte zurrumurrua besterik ez zen irratiko ahotsak esaten duena ulertzen hasi naiz. Eguraldia, langabezia, Katalunia, ustelkeria, istripuak, hildakoak, Altsasu, masterrak gora eta behera, "Manada", "Aquarius"... gutxienez esan dezakegu eguraldia ez dela Gobernu zoragarri honen errua, bueno... klima aldaketa, kutsadurarekiko dagoen kontzientziazio falta eta gobernuaren guztizko arduragabetasuna, agian lehorte eta uholde zenbaitetan izan dute eragina bai. Pentsatzen ari nintzela berriro ahotsa, oraingoan entrenatzaileak gora eta behera ari dira, jokalaria, baloi eta zelai. Nola ez, beti bezala futbola guztia ezkutatzeko eta herritarrak pozik izateko. Hori izango ote da azken aldian futbol zelaiak handitzeko arrazoia? Hori guztia lurperatzeko metro karratu asko behar dira. Baina bueno futbolak nahiko leku dauka lehen ere komunikabideetan, asko eta batez ere oso-oso gaizki banatua, emakume eta gizon, talde bat eta beste... eta nire partetik behintzat



Arg: Unsplash.

ez diot denbora gehiago eskaini nahi, ez bada ezberdintasun horiek amaitu direla entzuteko.

Dutxatu, jantzi eta kalera noa, baina ezin dut atea ireki, ez naiz auzartzen, mundura ateratzeko beldurra daukat. Beldurra daukat emakumea naizelako, beldurra daukat ni babesteko dagoen pertsonak nahi duena egin dezakeelako nirekin eta gainera errua nirea izango delako. Beldurra daukat badakidalako daraman arropa edo nire ibiltzeko modua, nire ahotsa, nire presentzia eta existentzia hutsa, kritikatuak eta epaituak izango direlako. Beldurra daukat nire erasotzailea aske uzten dutelako, beldurra daukat "justiziak" bera biktima moduan tratatuko duelako. Beldurra daukat euskalduna naizelako eta dirudienez horrek esan nahi duelako jaiotzez terrorista hitza dudala abizen moduan.

Ba jakin ezazue ez dela horrela, nire abizena izenaren ondoan dator, pixka bat beherago, eta ez du inongo terrorista hitzik, nire 12 abizenen zerrenda egin dut eta benetan diot, ez dut terrorista hitza inon aurkitu.

Ez dut inor gutxietsi nahi, baina guztiz ziur nago nahastu egin zaretela eta euskaldun izateak ez zaituela terrorista bihurtzen, ez da genetikoaren zerbait. Baina lasai, zuzenketa txiki bat besterik ez da egin behar duzuen.

Barne gatazkarekin jarraitu dut ate aurrean zutik.

Demokrazia honi nazka diodala konturatu naiz. Hitzak hartu eta hiztegien daukaten esanahia aldarrikapen moduan erabili eta gero nahi dutena egiten duten pertsonen nazka ematen didate. Eta gainera nire onerako eta nire interesen alde ari direla diote. Sinetsi eta onartu egin behar ditut gainera, gezur guztiak onartu. Egia bakar bat den bitartean, estatu zapaltzaile eta inposatzaile batean bizi garela (bizitza baldin bada hau) beldurra ereinez beraien beldurrak estali nahi dituen estatu batean.

Ohean etzan naiz berriz, gaurkoan ez naiz aterako, agian beste batean. Esnatu, benetan esnatu eta amets gaiztoa amaitu dela ikustean.



luze

Leire Aranburu

Nire bizitza neurea egin nahi dut?

Nire bizitzan gertatzen den guztia, nire ardura da. Jakina, harriduraz har dezakezu, irakurle, baieztapen kategoriko hau. Niri ere kostatu egin zait sinistu eta ulertzea, baina ziur nago horrela dela. Txiki-txikitatik ikasten dugu ardurak kanpoan jartzen eta okerrak besteei, zirkunstantziei edo zorteari leporatzen. Bizitzan era guztietako gertaera mingarriak gertatu ahal zaizkigu, askotan ulergaitzak, eta zaila egiten zaigu ikustea non dagoen geure ardura hauek pairatzen ditugunean. Nire bizitzaren jabe osoa izan nahi badut, niri gertatzen zaidanaren ardura halaber hartu behar dut, gogorra oso egiten bazait ere. Denak du bere zergatia eta bere zertarakoa. Zergatia aurkitzea eta zertarakoa ulertzea zaila bada ere, hor nonbait daude, neure barruan. Kontziente egiten ditugunean, erabaki dezakegu zer egin. Eta ez badugu ezer egiten, seguruenik, berriz errepikatuko dira.

Kexak eta kexatzeak, besterik gabe, ez dute ezer konpontzen. Kexatzen garenean, gure garunak ulertzen du dagoeneko zerbaite ari garela egiten baina honek, berez, ez du ekartzen arazoaren soluzioa. Erruak leporatzean, berdin. Hemen ez da erruak eta errudunak aurkitzea, ez eta barkatzea ere. Benetako barkamenak onarpena eta ardurak hartzea izango litzateke. Erruen bila ari naizenean, epaile bihurtzen naiz. Nire burua errudun egiten dudanean ere. Nire parte bat epaile eta nire beste parte bat edo beste pertsona batzuk, errudun. Zigortu eta, ahal bada, barkatu. Eta berriz, berdin errepikatuko



Arg: Unsplash.

dut ez baitut sakondu zergatian eta zertarakoan.

Eta non egon daiteke, nire bizitzako gertaera askoren zergatia? Batzuetan, nire gurasoen, aitonen, amonen edo beste senideen bizitzetan gertatutakoetan aurkituko dut erantzuna. Gertaera zuzendu gabe geratu zen eta, ondorioz, bizitzak aukera berri bat ematen digu zuzendu ahal izateko. Eta ez bat, aukera asko emango dizkigu.

Baina, agian, soluzioak bilatzeko ez dugu horren urrun joan beharrik. Batzuetan nahikoa da geure bizitzak aztertzea ikusi ahal izateko zer ez den behar bezala joan. Harremanak, lana, osasuna, ekonomia eta beste gai asko kezka iturriak izan daitezke geure bizitzetan. Maiz, kanpoko faktoreetan jartzen dugu erantzukizuna. Horrela, nagusi gaitoak, zorte txarra, gaixotasunak, krisia eta beste asko jotzen di-

tugu gure zorigaitzoen errudun. Hau eginez, neurea den arazo baten soluzioa kanpoan jartzen dut eta ez nigan. Kanpoan jarriz gero, soluzioa kanpotik etortzea espero dugu. Aldiz, nik hartzen badut neure bizitzan gertatzen direnen ardura, neure barruan aurkituko dut soluzioa.

Niri lehenengo umea jaio eta bi egunetara hil zitzaidan ospitalean bertan. Ez nuen ulertu heriotza gazte hau eta oraindik kostatzen zait ulertzea, baina itxaropenik ez dut galdu inoiz ulertuko dudala honen nondik norakoa. Beste gertaera batzuk errazago uler ditzaket, esaterako, lanpostua galdu dudanean edo dibortziatu naizenean.

Laster 60 urte beteko ditut eta, atzera begiratzen dudanean, nire bizitzako gertaerek, pieza askotako puzzle batean bezala, tokia hartzen dute. Gero eta zentzu handiago aurkitzen diet gehienei eta, batzuk nire gustukoak ez baziren izan ere, banoa ulertzen zergatik eta zertarako gertatu ziren. Bizitza gertaeren katea baino ez dela pentsatzen badut, bestalde, oso zaila egingo zait ezer ulertzea; kateak nire jaiotza eta heriotza lotzeko balioko baitu soilik.

Nik neuk neure burua, neure familia eta oro har bizitza orokorrean, aztertzen ditut etengabe erantzunen bila. Horrela, poliki-poliki banoa neure bizitza ezagutzen eta ulertzen. Honi esker, gero eta erantzukizun handiago hartzen dut nire bizitzaren gainean. Ezin da bestera izan.



Zabal

Koldo Nuñez

Artilea, lehengai izatetik hondakin izatera

Artilearen arazoari irtenbidea emateko egitasmoa jarri du martxan Mendialdea Mankomunitateak.



Antzinan material preziatua zen ardi-ardien artilea, janzteko ez ezik oheko arropa nahiz koltxoiak egiteko erabiltzen baitzen. Ardirik ez zutenek edota artilea erosteko gaitasun ekonomikorik ez zutenek arto-hostoz egindako koltxoietan egiten zuten lo. Gaur egungo aitona-amona askok oraindik gogoan dute artilezko koltxoietan lo egiten hasi zirenekoa, a zer plazera! Baina zuntz sintetikoek ordezkatu egin dute.

Gaur egun, edozein izkinatan botata ikus ditzakegu artile mendiak. Bere erabilerak behera egin ahala prezioa jaitsi egin zen eta erosleak ere geroz eta gutxiago izaten hasi ziren. Garai batean artzainek artileari ateratzen zioten errentagarritasun ekonomikoa ezerezean gelditu zen eta gastua ere bilakatu zen, artilea eraman zezaten ordaintzen hasi baitziren.

Azken urteotan diruren truke artilea eramaten zuten horietako asko ere dagoeneko ez daude horretarako prest eta egiazko arazo bihurtu da artzaintzat artilea.

Lehengai izatetik hondakin izatera pasa da, inork kudeatu nahi ez duen hondakina. Eskualdeko artzainek zuten arazo horretaz jabetuta, Mendialdea Mankomunitateak artilea kudeatzeko egitasmo bat jarri du martxan. Artzainen beraien parte-hartzearekin sortu da proiektua. Joseba Sanchez, Mendialdea Mankomunitateko teknikaria: *“Larraunen bi bilera egin ditugu eta Mankomunitateko gainerako udalerrietan beste lau, sei*

Artileari irtenbidea eman ezinik dabilta artzainak.
Arg: Labrit.

Uztailetik aurrera artilearekin konposta egiteko egitasmoa jarriko du martxan Mendialdea Mankomunitateak.
Arg: Labrit.



osotara. Larraunen egin genuen lehen bilera hartara hamar artzain inguru joan ziren eta beraien egoera aztertu ondoren irtenbide bat aurkeztu diegu, artilearen bilketa eta tratamendua egitea”.

Artilea lehengai bat izanik ere, lege aldaketa baten ondorioz, gaur egun hondakintzat hartzen da. Mendialdea Mankomunitatea hiri hondakinak kudeatzeaz baino ez da arduratzen eta artilea kudeatzearen eskumena baserritarrena dela azaldu digu Josebak: “Gure ardura ez den arren, Mankomunitate gisa lagundu egin behar diegula uste dugu eta egoerari irtenbide bat ematen saiatu gara. Oraingoz ez dugu doako irtenbiderik lortu, beraz, ordaindu egin beharko da. Gure proposamena da guk koordinatuko dugula, baina baserritar bakoitzak sortzen duenaren arabera ordainduko duela, artile kilo kopuruaren arabera”.

Beraz, artzaintzako gastu bat izaten jarraituko duen arren, irtenbide hobea bat aurkitu bitartean aukera hori eskainiko die Mendialdea Mankomunitateak eskualdeko artzainei. Kasu honetan Joseba Sanchez Araxes Mankomunitateko teknikaria ere badenez, bertakoei ere zerbitzua eskainiko zaie.

“Bildutako artilearekin, konposta egiten da”

Hondakinak kudeaketaz arduratzen diren edozein plantak ezin du artilea tratatu, beraz aukerak murriztu egiten dira. Erriberako Ecofer enpresa arduratuko da bertatik eramango den artilea tratatzeaz.

la ezinezkoa bihurtu da artilea saltzea, Joseba...

Rasa arrazakoa saltzea errazagoa da, baina latxarena ezinezkoa! Orain dela bi urtera arte bazen *Ardibide* izeneko kooperatiba bat artilearen erosketa kudeatzen zuena eta Txinara eramaten zuena. Enpresa hori itxi egin zen. Ekialdeko ile-moztaileak erosten zuten orain gutxi arte, Ukraina bezalako herrialdeek, baina latxarena jada ez dute hartzen. Ile motzeko artilea erosten dute bakarrik.

Zergatik?

Muturbeltzak diren horien artilea tindatzeko zailagoa da eta latxaren artilea orokorrean harrotzeko askoz konplexuagoa da. Adibidez isolatzaileak egitea korapilo gehiegi izaten ditu latxarenak eta jendeak ez du erosten. Gaur egun artilearekin bio-plastikoak egiten hasiak dira, surf taulak eta bestelakoak ekoizteko. Nafarroako Gobernua halako proiektu bat martxan jartzeko lanean ari da eta pentsatzen dut datorren urterako horren berri izango dugula.

Batzuek erre egiten dute, beste batzuek mendian utzi...

Erretzea ez da erraza, denbora asko egon behar da gainean eta ardi asko baldin badituzu... Ehun ardiren ilea goiz batean erretzen duzu, baina gehiago baldin badituzu ezinezkoa da. Eta mendian uztea ere debekatu dago. Guk, Mendialdeko Mankomunitatetik Nafarroako Gobernu Ingurumen Departamentukoei eta basozainei galdetu genien eta ez ziguten konponbiderik eman, ez dela euren arazoa. Guk artilearekin konposta egitea lortu dugu, hau da, lehengai bezala tratatuko da.

Baina gastu bat izanen da artzaintzat...

Bai. Nik ulertzen dut eta beraiekin bat egiten dut artilea lehengai bezala tratatu beharko litzatekeela esaten dutenean, baina gaur egun legeak ez du horrela jasotzen.

Eta zenbateko gastua izanen da beraientzat?

Tona bakoitzeko 40 euro gehi garratua. Artzainen denek edo gehie-

Gurean oraindik ere zenbait artalde handi aurki ditzakegu.
Arg: Labrit.



nek parte hartuko balute, 30 zentimo izango litzateke ardi bakoitzeko. Noski, nik 100 ardi baldin baditut, 30 euro ordaintzea ez da dirua baina hortaz bizi den batentzat, 1.000 buruko artaldea badu, gastu bat da.

Zein izango da prozesua? Zuek pasako zarete etxez etxe artile bilketa egitera?

Ez. Hilean bi edo hiru egun jarriko ditugu eta Udalekin adostutako tokira eraman beharko dute artilea. Bertan teknikari bat edo udal langile bat egongo da artilea pisatzen eta artzain bakoitzaren datuak hartzen. Datuen artean, kontu korrante zenbakia eskatuko da, gero horren bitartez kobratzeko.

Toki horiek dagoeneko zehaztu al dituzue?

Ez, hori udalek esan beharko digute. Baina Larraun eta Lekunberrirako toki bat egongo da, Leitza eta Aresorako beste bat. Eta ikusi egin beharko dugu, Goizueta eta Aranorako eta Araitz eta Betelurako beste gunek zehaztea lortzen dugun.

Beraz, artilea puntu horietara eraman beharko dute eta hortik nora bidaliko duzue?

Handik Ecofer enpresara garraiatuko dugu, Erriberara eta bertan konposta egingo da, ongari bihurtuko da. Tonako 40 euroren truke egingo digute, baina orain nola deskargatu beharko

dugun esan beharko digute, artzainek zakuetan ekartzen baldin badute horiek hustu egin beharko direlako, eta lan hori nork egingo duen, nola ordainduko den... hori guztia erabakitzeko dago. Baina uztaierako dena loturik izatea da gure asmoa.

Interesatuak non eman beharko dute izena?

Udalek koordinatuko dute hori eta udalen bitartez pasako zaie abisua artzainei.

Egin dituzuen bileretan zein iritzi jaso dituzue artzainen aldetik?

Denetarik, batzuek ulertzen dute, beste batzuk kezu dira lehengaia delako eta hala kudeatu beharko litzatekeelako. Baina eztabaida horretan ez gara sartu, ni beraiekin bat natorrelako baina gaur egun legez ezin delako. Baina, irtenbidea eman behar zaio. Kontua da hori nork ordaindu behar duen. Baztanen adibidez Udalak ordaintzen du, gure kasuan, Mankomunitatean pentsatu zen hori ezinezkoa zela, bestelako alor batekoek ere eskubide berdina izango luketelako orduan. Gai honi konponbidea eman behar zaio, baina hori iritsi bitartean beharrezkoa da alternatiba bat bilatzea eta guk haxe proposatu diegu. Artalde handia dutenek ziurrenik erabiliko dutela zerbitzua, buru gutxi batzuk dituztenek agian ez.

NEKAZARITZA, INDUSTRIA ETA ERAIKUNTZA
ARLOETAKO HORNIGAIK
BURDINDEGI ETA BRIKOLAJEKO TAILERRA

URZUBI S.A.

Tel. 948 50 42 41
Fax 948 60 45 20

Lekunberri
urzubi@hotmail.com

TAXILON

661 202 249
(9 plaza)

Lontxo Otamendi Artola

E-posta: lotamendi5@gmail.com

Atallu - Araitz

urrutia
enea

etxeke hestekiak

LEKUNBERRI

OTXOTORENA
okindegia

ARRIBE

ADIII TLF BERRIA:
948 51 30 32

panaderia okindegia

GALBURUeco

Egurrezko laboreko ogi ekologikoa

Alde Zaharra 50 LEKUNBERRI 31870
948 50 40 42

Ezusteko saria Araxesko bi ikaslerentzat



Maiatzeko azken larunbatean egin zen Nafarroako "Erdialde" euskarazko idazlan laburren XI. lehiaketako sari banaketa. Bertan Araxes ikastetxeko DBHko Naroa Flores eta Chenoa Sotil sarituak izan ziren. Chenoak "Biak ez, baina ama bai" ipuin laburra aurkeztu zuen eta Naroak berriaz "Aitaren bila" izeneko lana. Nola bizi izan ote dute esperientzia?

TELEFONO DEIA

"Nik telefono deia jaso nuenean, txantxa bat zela pentsatu nuen" esan digu Chenoak. Gainera, deitu zionaren hitz egiteko moduak zalantza eginarazi zion, "Eh, colega, que has quedado entre los tres primeros en el concurso del cuento" esanez eman baitzion berria. Aldiz, Naroak, bigarren deian hartu zuen eskukoa, eta

beste aldean zegoenak ahots grabea zuela esan digu.

SORMENA LANTZEN

Hasiera batean, ipuina beste lehiaketa baterako sortu zuten, ilustrazio batean oinarriturik. Bukatuta zegoenean, irakasleak beste lehiaketa bat proposatu zien, nahi izanez gero parte hartu ahal izateko, lehiaketa hau hain zuzen ere. Beraiek, nola ez, parte hartzea erabaki zuten, jada ipuina sortua baitzuten. "Ez genuen ezer galtzeko!" dio Naroak.

SARI BANAKETA

Saria banatu aurretik, ez zekiten zein postutan geratu ziren, baina bazekiten hiru hoberenen artean zeudela. "A eta D eredueta banaturik zegoen, adina kontuan harturik". Ikasle hauek

urduri sentitzen ziren eta zoriontsu aldi berean, sari banaketaren gela jendez beteta baitzegoen. Naroa ezin izan zen bertan egon, anaiaren Lehen Jaunartzea zuelako. Honako sari hauek jaso zituzten: Senda Vivarako bi sarrera, izotz pistarako beste bi, gozoki sorta eta dirua. Kazetari asko zeuden argazkiak ateratzen prentsarako. Gainera saria ematen zuena ere urduri omen zegoen, eta, Chenoaren esanetan, aurpegia izerdiz blai egin da zeukan sari banatzaileak eta muxu ematerakoan Chenoari aurpegia ere busti omen zion.

A ZE ESPERIENTZIA!

Esperientzia bikaina izan da bi ikasle hauentzat, izan ere, ezustekoan harrapatu zituzten eta egindako lanaren errekonpentsa izan da. Ez zuten halako arrakastarik espero; irakasleak ipuinak oso onak zirela esan zien, baina ez zuten halako dei berezirik espero. Gurasoak oso harro sentitu ziren; Chenoaren hitzetan, "nire aitak gorbata eta guzti jarri beharko zuela esan zuen, txantxetan".

Esperientzia berriak bizitzea oso gauza polita da denontzat. Eta berria hain ezusteko ederra izanda, are gehiago. Zorionak artistak, eta jarraitu irudimenaren hegoak astinduz amesten!

DBH2-ko ikasleak (Betelu).

Lagunasesoria S.L.
Fiskala
Laborala
Kontabilitatea
Seguruak...

k/ Artzanegi, 2 Behea 31870 Lekunberri (Nafarroa) tel/fax 948 504 232
lagunasesoria@terra.es

SOTIL GARAJEA
BETELU
948 513 007
sotilgarajea@gmail.com

OKM
ABOKATUAK
Eukeni Celaya Zubieta · Mikel Iraola Sarasua
Arretxea, 1º, Alli. Tfnoa: 609 130 555

BETELU

Herria Mailoperen alde kantuan

Ekainaren bigarren larunbatarekin Mailoperen aldeko kantu emanaldia egin genuen. Eguraldi kaxkarrak dela eta Beteluko plazan aurreikusitako ikuskizuna frontoian egin behar izan genuen. Urteik urtera herritar berriak animatzen dira bertan parte hartzera, batzuk entsegu bakar bat ere egin gabe. Hori da hori meritua! Eskerrik asko parte hartu zenuten guztiei!



AZPIROTZ ETA IRIBAS

Ohiturak berreskuratzen

Eskualdeko zenbait herrik San Joan bezperako tradizioa jada galdurik bazuten ere, hasiak dira berriro ere ohitura berreskuratzen. Azpirotzen urte asko zeramaten San Joan gaua ospatu gabe, baina aurten herritarrei gau horrek izan ohi duen magiaz kutsatuta animatu eta sua piztu zuten herrian aurretik haurrek etxez etxe bildutako materialarekin.

Iribasen, iaz berreskuratu zituzten eta aurten ere arrakasta handiarekin errepikatu zituzten. Herritar dezente bildu zen denen artean prestatutako afari-merienda eder baten bueltan eta helduenak ere su gaintetik salto egitera animatu ziren.



LARRAUN

LipDub-a grabatu dute aurtengo Larraungo Egunean

Urtean behin hainbat jardueraren eta bazkari eder baten bueltan biltzeko aitzakiarekin ospatu dute larraundarrek ibarraren eguna. Aurten, pauso bat gehiago eman da eta Larraungo herritarrekin grabatutako LipDub bat grabatzea proposatu zuen Bizi Larraun Bizi taldeak. Helduak, zein gazteak elkartu ziren Lekunberriko Alde Zaharrean. Aurki ikusgai izanen dugu grabaketa horren emaitza. Antolatzaileek aurtengo ekitaldiak emandakoarekin pozik daude. Larunbatean jende asko bildu zen Uitzin, batez ere arratsalde partean haurrentzako antolatutako jardueretan. Ondoren, Gorka Urbizu omendu zuten eta giro berezia sortu zen egin zuen emanaldi txikian. Igandean ere pertsona ugari elkartu ziren Lekunberriko frontoian egin zen bertso-bazkarian.



MUGIRO ETA BETELU

Hasi da festa!

Mugiron eta Betelun Sanpedro jaiak ospatu zituzten joan den hilaren azkeneko asteburuan. Jai hauekin hasiera eman diegu eskualdeko festa denboraldiari. Etxez etxeko puska-biltza herritarrek giroturik ibili ziren Mugiron eta Betelun ere plaza bete-beteta egon zen asteburu osoan zehar. Aurten berritasun gisa, Araitz eta Beteluko hainbat herritarrek sorginei buruzko ikuskizuna eskaini zuten. Estreinaldia Betelun egin zuten, baina emanaldiaz gozatzeko aukera izan ez zenutenek Azkarateko Sanferminetan ere aukera izanen duzue. Datozen festetako egitarauak azken orrialdean dituzue ikusgai. Hona hemen Betelun bildutako zenbait irudi.



**BACALAO
ELKANO
S.L.**

Industrialdea, 11
31870 Lekunberri - Nafarroa
Tel.- 948507319 Fax.- 948604792
bacalaoselkano@jet.es
www.bacalaoselkano.com

Araitz, Aralar, Araxes

Araitz izenak **haritza** adierazten du <<pagoaren familiako zuhaitza, hosto erorkor eta gingildunak dituena, fruitutzat ezkurra ematen duena, zurgintzan oso aintzat hartua den zura duena>>. Izen zientifikoa *Quercus sp.* du eta, adibidez, Gernikako arbola haritza da. **Araitz** aldaera **haritz** izenaren forma zaharragoa da. Hortaz, gaztelaniazko **Valle de Araitz** <<valle del roble>> da, esanahiari dagokionez; nahiz eta, zenbait lekutan (baina ez Araitz ibarrean) **haritz** hitza erabiltzen zuten edozein zuhaitz mota izendatzeko: alegia, **arbola** adierazteko.

Araitz izenak bi alor hartzen ditu: geografia eta administrazioa. Geo-

grafia dagokionez, Araitz ibarra da Aralar mendiko lurraldeetako bat, Araxes ibaiaren ibarra: hain zuen ere, Azpirozko mendatea eta Illarazu bi-tarteko lurralde nafar guztia.

GALDERA: Betelu Araizkoa al da?

ERANTZUN ZUZENA: Bai eta ez. Bai, Betelu Araitz ibarrekoa da (geografia); baina ez, Betelu ez da Araitz udalerrikoa (administrazioa). Izan ere, Araitz udalerriko herriak Atallu, Arribe, Azkarate, Gaintza, Intza eta Uztegi bakarrik dira. Gainera, eta batere zalantzarik gabe, Betelu Araizkoa da hizkuntza, kultura, historia eta abarri dagokienez.

Horra izen hirukotea: **Araitz, Aralar,**

Araxes. Hirurak elkarren ondoan eta hirurak izen-erro beretik sortuak, **Ara-** izen-errotik eratorritako hiru senideak: ibarra, mendia eta ibaia.

Ezezaguna zait **Ara-** izen-erro horren esanahia: iritziak iritzi, misterio halako bat dugu hor. Gainera, eta batere zalantzarik gabe, misterio hori harrigarria da kontuan hartzen badugu beste hau: Armeniako lurraldean, Errusia eta Turkiarekin muga eginez, bada **Ararat** izeneko mendi izugarri handia (5.200 m), bere oinetan **Araxes** izeneko ibaia duena. Horra, Armenian ere, **Ara-** izen-errotik eratorritako bi senide: **Ararat** mendia eta **Araxes** ibaia.



**OHI DENA
EDATEA
GEHIEGI
IZAN DAITEKE**

Ezagutzen dituzu zure mugak?

 www.ohidenaedatea.nafarroa.eus

Nafarroako  Gobierno
Gobernua de Navarra

ARARATZ ARALAR-ARAXES

Ez da oraingoxea **Ararat** mendiaren izena ere: kristauen *Bibliako* Hasiera liburuko "Uholdea" atalean aipatzen da: <<[Uholdea amaitzean, Noe-ren] untzia Ararat mendi gainean kokatu zen>> [Has. 8, 4]. Milaka urte ditu kristauen eta juduen liburu sakratuko *Hasiera* horrek; baina are eta urte gehiago ditu, jakina, kontuan hartuta "Uholdea" delako kontakizun hori

Biblia baino 800 urte lehenago argitaratutako Sumeriako liburu batetik hartu zutela juduek: beraz, lau mila urtetik gora ditu jatorrizko liburuak (idazkera kuneiformea buztinezko taulatan).

Beraz, **Aralar-Araxes** Euskal Herrian, eta **Ararat-Araxes** Armenian. Kasualitatea ote? Ez, noski; izan ere, arme-

niarrek diote euskaldunon lehengusu txikiak direla, antzina-antzina, oso antzina, familia berekoak ginela, euskara eta armeniera elkarren kideak direla... Horra hor beste misterio bat, eta ez txikia; eta misterio hori argitu nahirik hainbat bide ibili eta aztertu ditugu, baita argibide ugari aurkitu ere. Baina hori kontu luzea da (eta jakingarria), eta beste baterako utzi beharko dugu. Horrenbestez, bego!

*Araitzko logo edo marka hori digitalizatzen Intzako Antsonegoiko nagusi Ximon Iriondok lagundu dit, Herkulanum letratipoa erabiliz. Milesker, Ximon!

EDARI UNITATEAK (EU)



URA /
FRESKAGARRIA

0 eu



BASOKADA
BAT ARDO

1 eu



KAINA BAT
GARAGARDO

1 eu



GARAGARDO
HERENA

1,5 eu



KREMA /
LIKOREA

2 eu



RONA / VODKA
GINEBRA...

2 eu

ZURE OSASUNERAKO EZ GAINDITU



4 eu

..... Egunero

2 eu



6 eu

..... Egun jaikinetan

4 eu



ALKOHOLIK GABEKO BESTA, AUKERA HOBERIK EZ DA!



www.ohidenaedatea.nafarroa.eus

Nafarroako
Gobernua



Gobierno
de Navarra



Inoiz baino baja gehiago Euskal Herria Mendi Erronkan

Eguneko bero zakarrak eta hezetasanak joan den ekainaren 2an egin zen Euskal Herria Mendi Erronkan atera ziren korrikalari asko asko eta asko lasterketa bertan behera uztera behartu zituen. Goizeko zortzietan irten ziren 608 korrikalaritik 391k baino ez zuten lortu helmugaratzea. Seigarren edizio honetarako ekaitza zegoen aurreikusita eta ia euririk egin gabe eutsi bazuen ere, arratsalde partean izan ziren tximistak direla eta antolakuntzako kideek segurtasun kontuengatik Ireber aldean ziren azken korrikalariak geldiarazi egin behar izan zituzten.

Sailkapenari dagokionean, Izaskun Zubizarreta izan zen azkarrena emakumezkoetan, 8 minutu eta 32 segundotan egin zuen 67 kilometroko ibilbidea. Atzetik iritsi ziren Uxoia Irigoien (00:08:36) eta Silvia Trigueros (00:08:45). Gizonezkoetan, Raul Macarrentzat izan zen garaipena (00:06:59) eta bigarren eta hirugarren postuan sailkatu ziren Igor Amantegui (00:07:01) eta Iker Karrera (00:07:06).

Antolatzaileen arabera, oso gogorrak izan ziren eguneko baldintzak eta orain arteko lasterketarik gogorrena izan zen. Hala ere, balorazio positiboa egin dute, auzolanean antolatutako proba dela nabarmendu dute eta modu batera edo bestera lagundu zuten herritar guztien lana eskertzen dute.

Barkamena eskatu dute bestetik, Gaintzako Kilometro Bertikalean izandako akats teknikoarengatik, aurtengoan ezin izan baitzuten denbora horien sailkapena eman.

ESKUALDEKO KORRIKALARIEN SAILKAPENA:

- Xabier Azpiroitz (Astitz) 08:29
- Alfontso Etxarri (Arruitz) 09:06
- Iñaki Elizalde (Betelu) 10:17
- Imanol Estanga (Betelu) 10:44
- Luis Mari Larreta (Aldatz) 10:49
- Iñaki Alvarez (Betelu) 11:11
- Andoni Otxotorena (Lekunberri) 11:31
- Orgi Soroa (Lekunberri) 12:05
- Iñigo Garaioa (Lekunberri) 12:10





Plazaola Natur Bideko III. Maratoiaren eta XII. Maratoi Erdiaren aurkezpena egin dute

Joan den hilean aurkeztu zuten Lekunberriko Plazaola geltokian irailaren 16an izanen Plazaola Natur Bideko III. Maratoia eta eta XII. Maratoi Erdia. Bertan izan ziren, Idoia Perez (Nafarroako Kirolaren eta Gazteriaren Institutuko Kluben eta Kirol Errendimenduaren Bulegoko burua), Natalia Azkona (Lekunberriko Alkatea eta Plazaolako Lehendakaria), Jon Zulueta (Andoaingo Udaleko zinegotzi ordezkaria), Javier Barberena (Larraungo Alkatea), Jon Ander Unanua (Kirolmaneko Kudeatzailea), Ainhua Amundarain (Donostialdea Turismoko koordinatzailea), eta Gustavo Ortiz de Barrón (Plazaola Partzuergo Turistikoko Kudeatzailea).

42 eta 26 kilometroko probak izango dira. Ez da aldaketarik egonen ibilbideei dagokienez. Maratoian parte hartuko duten lasterkariak Lekunberriatik abiatuko dira eta Maratoi Erdia egiten dutenak aldiz Leitzatik. Helmuga berdina izango dute, Andoaingo plaza.

659 izan ziren iaz parte hartu zuten korrikalariak, antolatzaileek aurten kopuru hori gainditzea espero dute. Dagoeneko irekita dago izen emateko epea, www.maratonviasverdes.com atarian.

Ezetz errekorra hautsi!

Irailaren 15an izanen da II. Intza-Ttuturre Kilometro Bertikala. Joan den urteko ibilbide bera mantenduko da. Goizeko hamarretan Intzako plaza-tik irtengo dira lasterkariak eta Ttuturreko tontorreraino igo beharko dute. 3 kilometro eta 850 metro dira, baina 960 metroko desnibel positiboa du probak.

129 korrikalarik parte hartu zuten iaz, horietatik 13 eskualdekoak. Gizonezkoetan, Aitor Osa izan zen azkarrena lehenengo edizio hartan, 35 minutu eta 48 segundotan lortu zuen Ttuturreraino igotzea. Emakumezkoetan berriz, Maider Frailerentzat izan zen garaipena, 46 minutu eta 9 segundorekin. Aurten, gizonezkoetan zein emakumezkoetan errekorra hausten duten korrikalariei 150 euroko saria emanen zaie. Antolakuntzatik eskualdeko korrikalariei parte hartzeko gonbita luzatu diete.

Bigarren edizio hau ez da Nafarroako Txapelketaren barruan egongo, baina bai ordea, Nafarroako Mendi Federazioaren eta Euskal Mendi Federazioaren mendi lasterketen zirkuituetan.

Izen emateko aukera dago jada, www.rockthesport.com atarian. Izen-emate bakoitzetik bi euro Paris 365 Elkarteari ekarpena egiteko bideratuko da.

Informazio gehiago:

www.intzattuturrekb.eus atarian.

Antzonia
BASERRIKO GAZTA
948 513 468
www.antzonia.com
Uztegi (Araitz)

INFORMATIKA ARALAR
LEKUNBERRI - ARAITZ
LARRAUN
JALMENTA ETA KOMPONTZA
634 551 743
infoaralar@gmail.com

AUTOZERBITZUA - ARRAINDEGIA - HARATEGIA
PATXI GALARZA
Astelehenetik larunbatera
8:00 - 14:00, 17:00 - 20:00
Igande eta jaiegunetan
8:00 - 14:00
Irurtzun

SAN MIGUEL
Taberna-Jatetxea
Arribe
948 51 31 34

AA
FISIOTERAPIA
Andoni Ayerdi Olascoaga
609 536 002 · 948 604 789
Iturrifak kalea 7, 31870 Lekunberri
andoniaofisioterapia@gmail.com

AURRERA
TABERNA
ARALAR, 15
948 60 47 24

TAXI
SOROA
609 168 217
Bederatzi plaza

Hitzaspertuan



●● Agurtzane Altuna

Ilun-bixte

Anteajuk suurren puntteaño jetsi eta pantaila beltza enfokatu eziñik zeallen launei arpa jotzen hasi eta hala esan ziten: "Anteajuk ibiltzeak ez din bixte txarra denik esan nahi eh; bixte latza zeukenat nik". Iji eta aja artean, arpa jotzeak etzun etenik izan aldi etean, baño ze pentsa latza eman ziten bere esanak. Ez diot belarrin baztarrea esango, osotaa ollartukoa bestela, baño bai, arrazoi do, bixte latza izan ditteke gutxi ikusita re.

Bixte pixkoat donak ez tio eur gehio botatzen haserre daun horri, esate bateako. Askotan hobea izaten baita ostotsa pasa arte etxoittea.

Koapilloak eztee laun onak; itsutu itten due pertsona. Zein ez da kizkali noabattea joan behar ta giltzek billatzen ez dittolako. Jira hau, jira bestea; beittu hemen, beittu han; galtzan poltsiko hontan, azkena ibilitako berokin,...alperrik! Buelta bat ematea joan, arnasa hartu lasai, etorri ta ttak, hantxe bixte-bixten giltzek; magia!

Begin bixten eon ta halai ez ikusten. Hoi ez da bixteen falloa izaten, barrungo koapilloan itsutasune da hoi. Gaurko presa o bizimoduei kulpe botatzea badau, baño enuke nik hainbeste esango. Aspalditxokoa da txapelan bille eta bille zeallen attunan ixtorie: jo batea, jo bestera; ostia soñue hemen ta juramentuk han, txapela falta gizonak, ta txapela burun gañean. Bixten dau ganbaa hartan ittuzurek hasita zeudela, nahiz ta txapela beltzaakin tapatu gallurre.

Bixtekoa zen bezala jakie leihoan utzi ezkeo katuek eamango zula; o aldapa halako ziztun jetsi ezkeo laugarren bueltan muturrez aurrea eroiko zela. Playan faltan, presa, erreka o pistina baztarretan titi ta petxu bixten ageri dee udako aurreneko loreak; titi ta ipurdi bixten etxeko ttikinak. Ttikinak, urteakin lotsak tapatzen baititto berez bixten behar lueken hoik denak.

Ta maitale berri hoik? Diximulatzen saiatuta re, sututako beitturek nabarmenak izaten dittuen maitale hoik? Ilun-bixte izaten due hoik babes, baño urteko garai hontan beandu etortze'a ilune, bixten ibili nahi eztonantzat. Ilun-bixte, ze hitz joku politte! Bixten do ilun-bixtek bere magia, ta ikusten ez donak bauke barru hortan koapillon bat galanta.

ORUXMAPS



Orientatzeko arazoak? Aplikazio honek hori konpon-tzen lagunduko dizu. OruxMaps, kirolera zuzenduta onena da. Hainbat kirolerako erabil daiteke, baina gehienbat median ibiltzeko dago zuzendua. Aplikazioak berak ibilbide desberdinak ditu gordeta, baina zuk egin-dako ibilbideak ere bertan gorde ditzakezu. Bere orrialdean, mapa desberdinak deskargatzeko aukera ematen du eta aplikazioa erabiltzeko instrukzioak ere bertan daude.

OruxMaps, Android plataforman bakarrik dago erabilgarri eta bi aukera daude deskargatzeko: Google Play-etik jaitsi ezkerro, hiru euro ordaindu behariko dituzu (www.oruxmaps.com) jaitsi ezkerro berri, doan izango da baina diru ekarpen txiki bat egiteko aukera ere izango duzu aplikazioaren sortzaileei laguntzeko.



Xanti Saigos

klik egin

Errehabilitazio zerbitzua eskainiko dute Larraungo osasun etxe berrituan

Maiatzean amaitu zituzten Larraungo osasun etxeko berritze lanak eta joan den ekainaren 18an egindako inaugurazio ekitaldiarekin borobildu zuen Larraungo Udalak osasun etxeko proiektua.

Bertan izan ziren, Fernando Dominguez Nafarroako Gobernuko Osasun Kontseilaria, Santos Indurain Lehen Mailako Arreta zerbitzuko zuzendaria, Larraun eta Lekunberriko Udaletako alkateak eta ordezkariak eta osasun etxeko langileak.

Osasun zerbitzua emateko 105

“Inbertsio honek onura garrantzitsuak ekarriko dizkie Larraun eta Lekunberriko bizilagunei”

metro karratu gehiago egokitu dira eta aurrerantzean osasun etxeak, medikuntza orokorreko bi kontsulta, pediatriako kontsulta bat, erizaintzako hiru kontsulta, fisioterapia eta errehabilitaziorako kontsulta bat, errehabilitazio sala bat, administrazioa eta sarrera, itxaron-gelak, komunak, biltegia eta bulego bat izango ditu.

Orain arte eskaintzen ziren oinarriko zerbitzuak zabalitzeaz gainera, errehabilitazio zerbitzua eskainiko da eskualde osorako, Leitzako eta Irurtzungo osasun guneetako herritarrei ere



 **ALIPROX**
Lekunberri
janaridenda
hamabostaldi
eskaintza bereziak

Iñigo Garaioa
MARGOLARIA
 696 658 288
LEKUNBERRI

 **SUAKONTROL
LEKUNBERRI**
*Suaren
kontrako
plakak*
Oztegin kalea 25,
Lekunberri
948 60 48 96 (Tel.)
948 60 45 16 (Faxa)
suakontrol@grena.es
www.grena.es

IORTIA CLINICA DENTRAL HORTZ-ESTETIKA
Juanjo Gaitte García · Odontologoa Kol. Zbkia. 317
Estitxu Telleria Elorza · Odontologoa Kol. Zbkia. 591
Lekunberri: 948 604 804 · 618 818 005
Altsatsu: 948 467 603 · 667 66 17 69
ODONTOLOGIA OROKORRA · INPLANTEAK ·
ORTODONTZIA · HORTZ-ESTETIKA · PADI



zuzendurik egongo baita. Guztira, 11.814 herritarrei eskainiko zaie zerbitzua.

Nafarroako Gobernuaren 300.459 euroko diru-laguntzarekin egin dira berritze eta handitze lan hauek eta 43.038 euroko inbertsioa egin du Nafarroako Osasunbideak ekipamenduan, batez ere errehabilitazio zerbitzu hori eskaintzeko, karbonozko bizikleta, ultragorrien lanpara, parafina berogailua, ultrasoinuen tresneria, elektroestimulazio aparatua eta bes-telakoak.

Larraungo Alkatea den Javier Barberenak eraikina eraikiz gerotik izan diren aldaketak nabarmendu zituen. 1985. urtean eraikinaren beheko solairua osasun zerbitzuak emateko egokitu zen eta lehenengo solairua udal medikuarentzako etxebizitza eskaintzeko egokitu zen.

2005ean, zenbait egokitzapen egin ziren espazio faltagatik eta gerotik osasun etxea zabaltzeko beharra handitzen joan da. Berritze lanek iraun bitartean, berriki egokitua izan den Gabari etxeko beheko solairuan eskaini dira osasun zerbitzuak.

Bestalde, Barberenak, errehabilitazio zerbitzu berriak herritarrei

ekarriko dizkien onurak aipatu zituen: *“Inbertsio honek onura garrantzitsuak ekarriko dizkie Larraun eta Lekunberriko bizilagunei. Lehen mailako arreta zerbitzuak denoi eragiten digulako. Eta bertan eskainiko diren zerbitzu berriek, behin baino gehiagotan Iruñera joan beharra saihestuko dute”.*



Hostal Betelu

Eguneko menua,
karta, plater
konbinatuak eta pizza
goxoak

Etorri eta
on egin!

Erreserbak:
948513026
618557889

AMAIRU BAR

ETXKO PIZZAK,
KOPA, BERGIZIAK

948504352

LAGUNDU MAILA
LAGUN

Mailopeko bazkidea
izan nahi duzu?
mailope@labrit.net

LARRAUN GARABI ZERBITZUA 24 ORDUZ
MEKANIKA ETA ELEKTRIZITATE TAILERRA

Gruas y Talleres LARRAUN S.L.

Lekunberriko industriagunea,
21. nabea
31870 Lekunberri
Nafarroa

Mugikorra: 626 494 356
Telefonoa: 948 507 229
Faxa: 948 507 281
gtlarraun@gmail.com

LARRAUNGO UDALAREN ADIERAZPEN INSTITUZIONALA, 2016KO UZTAILAREN 7AN, GERTATUTAKO BORTXAKETAGATIK EMANDAKO SENTENTZIAREN INGURUAN

Nafarroako Probintzia Auzitegiaren sententzia jakin berritan, non 2016ko uztailaren 7an hainbat gizonek emakume bat bortxatu zuten, Larraungo Udaleko Batzarrak honakoa ADOSTU DU:

- 1- Udal honek eta Larraungo herriak bere babes, maitasun eta elkartasuna adierazten die biktimari eta bere senitarteko eta ingurukoei.
- 2- Sententziak jasotzen duenarekin gure erabateko desadostasuna adierazten dugu, eta bereziki, jazotakoa sexu-abusu jarraitu gisa aitortu duelako. Zentzu honetan, gure babesa erakutsi nahi diegu aipaturiko sententzia inpugnatu edo inpugnatuko duten erakundeei, beharrezkoak diren errekurtsorako bitartekoak erabiliz.
- 3- Gure etsipen eta haserrea erakusten dugu sententzia honen aurrean, eta justizia eskatzen duen aldarriarekin bat egiten dugu.
- 4- Emakume guztiak askatasunerako duten eskubidea aldarrikatzen dugu, eta, era berean, Larraungo herriak ez duela inolako eraso matxistarik onartzen.
- 5- Udal honek berdintasunaren alde lan egiteko konpromisoa berresten du, mugimendu sozial, feminista, eta, oro har, herritarrekin, eta bereziki, emakumeen eskubideen defentsan eta patriarkatuaren adierazpen ororen aurka.



ARAXES GARAIKO MANKOMUNITATEA
MANCOMUNIDAD DEL ALTO ARAXES

GARBIGUNE IBILTARIA

Uztailak 19, osteguna, PUNTU GARBIA MUGIKORRA pasako da. Bertara, honako hondakin mota hauek eraman behar dira:

- *pilak, mugikorrak
- *bonbilak eta fluoreszenteak
- *pinturak, barnizak, disolbanteak...
- *autoen bateriak, olioak...
- *toner, tinta kartutxoak...
- *elektrogailu txikiak
- *aerosolak, lixiba
- *radiografiak, termometroak

Herri bakoitzean, etxeko olioak biltzeko dagoen ontziaren ondoan kokatuko da ondorengo ordutegian:

BETELU:	10:00-11:00 (ESKOLA AURREAN)
ARRIBE:	11:00-11:30
ATALLU:	11:30-12:00
AZKARATE:	12:00-12:30
GAINTZA:	13:00-13:30
UZTEGI:	13:30-14:00
INTZA:	14:00-14:30



UZTAILA

15 | AZKARATE:

Araitz bailararen etorkizuna finkatzeko gogoeta saioa, 10etan Azkarateko kontzejuan.

21 | LEKUNBERRI:

Boite a musique taldearen kontzertua, herriko plazan, 20:00etan.

24 | LEKUNBERRI:

Zinea: "Handia" filma, herriko plazan, 22:00etan.

31 | LEKUNBERRI:

Zinea: "Wonder" filma, herriko plazan, 22:00etan.

ABUZTUA

5 | LEKUNBERRI:

Antzinako Azoka

7 | LEKUNBERRI:

Zinea: "Jumanji" filma, herriko plazan, 22:00etan.

14 | LEKUNBERRI:

Zinea: "Coco" filma, herriko plazan, 22:00etan.

26 | LEKUNBERRI:

Nekazal Azoka

LAN ESKAINTZA

Sukalde eta garbiketa lanetan aritzeko, bi pertsona behar ditugu uda honetan. Interesaturik bazaude deitu mesedez 667 797 904 telefono zenbakira.

SALGAI

- Baserri bat salgai Atallun. Egoera onean eta oso paraje ederrean. Harremanetarako 646 703 705.

- Pisu berritua salgai Betelun. 90 m2-ko etxebizitza, igogailuarekin, hiru logela (horietako bi balkoiarekin), bi komun, saloia miradorearekin, sukaldea terrazarekin eta garaje itxia. Harremanetarako: 699 348 975.

Bar Ainhoa

- Razioak
- Pintxoak
- Ogitaratekoak
- Plater konbinatuak
- Gosariak Tostadak mermeladarekin eta bertan eskuz egindako madalenak, erroskilak, croisant-ak eta napolitanak.

Astelehenetik ostiralera goizeko 7:00etatik aurrera

Aralar 15, 31870 Lekunberri (Nafarroa)

948 504 077 • 639 778 851 • aitziberalf@hotmail.com

German Lasarte
ARBEONDO
HARATEGIA
Aralar kalea 9
Lekunberri
948504157

CONSULTORIO VETERINARIO, S.L.

HIRUROK S. VETERINARIOS

Telefono zenbakia eta faxa:

948 50 43 31

Lekunberri

**aitz
berri**

edertasun
zentroa

Lako beikoa
Betelu 31890
948 513 083
696 732 290
aitzberri@hotmail.com

AZKARATEKO FESTAK

UZTAILAK 6 OSTIRALA

12:00 Txupinazoa.

Puska biltza herriko plazatik hasita.

22:00 Sorginkeria istorioetan oinarritutako dantza eta antzerki ikuskizuna.

Erromeria.

UZTAILAK 7 LARUNBATA

11:30 Erromeria San Fermin ermitara, Estanga aita- seme-alabak trikitilariekin.

12:00 Meza santua.

Aitor Mendiluze eta Iker Zubeldia bertsolarien saioa. Jolas eta abilezia probak eguerditik aurrera.

14:00 Bertso bazkaria.

18:00 Kirol-bertso-proba-bitxi abilezia eta umore saio berezia. Erromeria trikitilariekin.

21:30 Herri afaria.

24:00 Fan & Go taldea.

UZTAILAK 8 IGANDEA

12:00 Ume eta gaztetxoentzako jolasak eta sorpresak. Helduentzako abilezia.

Bazkal aurretik, Izer eta Alabier trikitilarien saioa.

18:00 Artzai txakur erakustaldia.

Sagardo dastaketa, eta jaiiei amaiera emateko dantzaldia Izer eta Alabier trikitilariekin.

ERRAZKINGO FESTAK 2018

ABUZTUAK 3, OSTIRALA

17:45 Jaien hasiera suziriekin.

18:00 Puska-biltza trikitilariekin.

00:00 Dantzaldia Trikidantzekin.

ABUZTUAK 4, LARUNBATA

11:00 Puska-biltza trikitilariekin.

18:00 Ume-jokuak.

21:30 Kuadrilla afaria sagardo kupelarekin.

00:00 Dantzaldia Oharkabe taldearekin.

ABUZTUAK 5, IGANDEA

11:00 Meza.

12:00 Umeen pilota partiduak.

18:30 Umeen herri-kirolak.

19:30 Aizkora apustua: Iker Vicente – Arria V – Ruben Saralegi.

Ondoren barrikotea.

ABUZTUAK 6, ASTELEHENA

11:00 Meza.

14:00 Zikiro-jatea eta ondoren dantzaldia Joxe Angelekin.

UZTEGIKO FESTAK

Abuztuaren 14ean eta 15ean ospatuko dira.

AZPIOZKO PESTAK 2018

ABUZTUAK 3, OSTIRALA

19.00 Ezkil-jotzea ta meza.

20.00 Pintxo-jatea.

23.00 Dantzaldie.

ABUZTUAK 4, LARUNBATA

11.00 Umeen jokuk ta frontenis txapelketa.

14.00 Herri bazkarie.

17.00 Mus txapelketa.

20.00 Frontenis finala.

23.00 Dantzaldie Gabenara taldeekin.

ABUZTUAK 5, IGANDEA

17.00 Herri kirolak.

19.00 Txokolatea.

20.00 Filma.

LEZETAKO JAIK 2018

ABUZTUAK 15 ASTEAZKENA – HERRIKO ZAINDARIAREN EGUNA

Goizean Mesa eta ondoren lunch-a.

ABUZTUAK 18, LARUNBATA

11:00 Jai egunaren hasiera ezkil jotzearekin.

11:30 Haur eta gaztetxoentzako jolasak, tailerrak eta ipuin kontalaria (Aeiou talde animatzailearen eskutik).

14:30 Herri bazkaria musikaz alaiturik.

16:30 EUSKARALDIA: Photocall-aren aurkezpena.

GORRITIKO PESTAK 2018

ABUZTUK 23, OSTEGUNA

10:00 Pestei hasera.

10:30 Puxke biltze Gari eta Iñaki trikitilariakin.

ABUZTUK 24, OSTIRALA

12:00 Larraungo pilota eskolako neska-mutil gaztetxoentzako partiduk.

14:00 Herri bazkarie, eta ondoren dantzaldie.

21:00 Herri aparie autogestionatue nahi duenarentzat.

23:30 TRIKIDANTZ taldearekin dantzaldie.

ABUZTUK 25, LARUNBATA

17:00 Ume jokuk.

20:00 Apalaurreko dantzaldie DJ OIXANIREkin.

21:00 Herri aparie.

23:30 DJ OIXANIREKIN dantzaldie.

ABUZTUK 26, IGANDEA

12:30 EUSKAL HERRIKO III. mailako aizkora txapelketa-
ren kanporaketa.

18:00 Bertso saioa: Aitor Mendiluze, Maialen Lujanbio
eta Iker Zubeldia.

19:30 Pintxoak sagardo eta ardoarekin, trikitilariekin
alaitue.

IRIBASKO FESTAK

Abuztuaren 25ean eta 26an ospatuko dira.